Gobierno de Navarra | Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

HUNTSMAN ADVANCED MATERIALS S.L.	Arostegui etorbidea z.g., 31,009 Iruña



Huntsman Advanced Materials Spain SL establezimendua (Arostegui etorbidea z.g., 31,009 Iruña) irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren xedapenei lotuta dago (horren bidez, substantzia arriskutsuekin zerikusia duten istripu larrien berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dira) BEHE MAILAN, eta 7. artikuluan adierazitako jakinarazpena egin dio Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuari, artikulu horren 1. apartatuan ezarritako edukiarekin.

Establezimenduaren jarduera

Gai kimikoak fabrikatzea, oro har.

Azken bisitaren eguna.

2024ko martxoaren 12a

Balizko istripu larriak eta sor ditzaketen eraginak.

Huntsman Advanced Materials Spain SL enpresaren ekoizpen-instalazioetan substantzia toxikoak, sukoiak eta ingurumenerako kaltegarriak daude. Establezimenduaren kanpoaldean eragina izanen lukeen istripu larri baten kasurik kaltegarrienak tionilo kloruroa biltegiratzeko andelaren akats katastrofikoa eta boro trifluoruroaren sakabanatze toxikoa dira. Eragin ditzaketen kalterik nabarmenenak hauek dira; PERTSONAK. - Heriotza, arnastuz gero, eta larruazalean erredura larriak, eta begietako lesio larriak, arnasbideetako narritadurarekin. INGURUMENA. - Airearen, lurzoruaren edo uraren kutsadurak sortutako kalteak.

Kontrolerako hartutako neurriak.

Instalazioan honako neurri hauek hartu dira:

Suteei aurre egiteko kontrol- eta arintze-sistemak.- Sute-ahoak, ur-harguneak, su-itzalgailuak eta ihinztagailuak

Detekzio eta alarma sistemak.- detektagailuak, alarma-sakagailuak, gelditze-sakagailuak, sirenak

Ihes-puntu estrategikoetan kokatutako detektagailu elektrokimiko erredundanteak eta independenteak.

Kontrol-sistema automatizatuak dituzten prozesuak

SO2 detektagailu elektrokimikoak ihes-puntu estrategikoetan, larrialdiko gas-garbigailuko haizagailuaren konexio automatikoa dutenak

Presio bidezko alarmak

Instalazioetako substantzia arriskutsuak

Tionilo kloruroa	**H314**	Erredura larriak larruazalean eta lesio larriak begietan.
	H302	Hilgarria larruazala ukituz gero.
	H332	Kaltegarria arnastuz gero
Fenola	**H301**	Toxikoa irentsiz gero
	H311	Toxikoa larruazala ukituz gero
	H314	Erredura larriak larruazalean eta lesio larriak begietan
	H331	Toxikoa arnastuz gero
Hidrazina	**H226**	Likido eta lurrun oso sukoiak
	H301	Toxikoa irentsiz gero
	H311	Toxikoa larruazala ukituz gero
	H314	Erredura larriak larruazalean eta lesio larriak begietan.
Amoniakoa/NH3	**H221**	Gas sukoia
	H314	Erredura larriak larruazalean eta lesio larriak begietan.
	H331	Toxikoa arnastuz gero
	H400	Oso toxikoa organismo urtarrentzat
Boro trifluoruroa	**H314**	Erredura larriak larruazalean eta lesio larriak begietan.
	H330	Hilgarria arnastuz gero
Sufre dioxidoa	**H331**	Toxikoa arnastuz gero

Inguruko herritarrei/jarduerei abisatzeko modua

Lantegian istripu larriren bat eragin dezakeen ezbeharren bat gertatuz gero, inguruko enpresei abisatu eta jakinaraziko zaie sirena akustikoaren bidez, polizia-autoetako megafoniaren bidez, irrati eta komunikabideen bidez, bai eta telefonoz ere inguruko instalazioei, hartu beharreko neurrien berri emateko

Nola jokatu istripu larririk izanez gero.

Industrialariak neurri egokiak hartu behar ditu, eta 112 zenbakira deitu, istripuaren ondorioak ahalik eta txikienak izan daitezen.

Istripu larriaren izaeraren arabera neurri hauek hartuko dira: Konfinamendua edo ebakuazioa/urruntzea.

Konfinamendurako eta norberaren babeserako jarraibideak	
	Kalean izanez gero, babes itzazu arnasbideak zapi batekin.
	Itxi itzazu ateak eta leihoak, jaitsi pertsianak eta ahal izanez gero haietatik urrundu.
	Behar izanez gero, jar itzazu zapi hezeak zirrikituetan.
	Ez erabili aireztatze gailuak.
	Ekidin itzazu eraikinetako behealdeak, hala nola sotoak edo garajeak.
	Ez erabili telefonoa behar-beharrezkoa ez bada.
	Tokiko irratiei entzun eta gomendio eta jarraibideei jarraitu
Urruntzeko eta babesteko jarraibideak	
	Bidean, babes itzazu arnasbideak zapi edo trapuekin eta bilatu babesleku bat.
	Behin helmugan, eraikin edo lokal baten barrualdera sartu zaitez eta itxi leihoak eta ateak.
	Ez erabili telefonoa behar-beharrezkoa ez bada.
	Tokiko irratiei entzun eta agintariek helarazten dituzten gomendio eta jarraibideei jarraitu.
Ebakuaziorako jarraibideak	
	Larrialdiaren arabera, gertuen dauden etxebizitzak ebakuatzea erabaki daiteke
	GASeko edo SOS 112ko buruak ebakuazio-bideak eta ordutegiak jakinaraziko ditu.

Informazio gehiago lortzeko

Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzua. Agoitz kalea 35 bis. Tel.: 848427171 proteccioncivil@navarra.es

http://www.proteccioncivil.es/riesgos/quimicos/presentacion